

# KULTURAREN EUSKAL BEHATOKIA

2012ko JARDUERA PLANA



2012ko EKITALDIA



## AURKIBIDEA

AURKEZPENA	3
<b>1. IKERKETA, HAUSNARKETA ETA KONTRASTEAK</b>	4
1.1. Kulturaren finantzaketa eta kulturako kredituak	4
1.2. Kudeaketaren arrazionalizazioa	5
<b>2. INFORMAZIOA KUDEATZEKO SISTEMA</b>	7
2.1. Kulturaren euskal behatokiaren berezko estatistikak	7
2.2. Bigarren mailako iturrien estatistiken azterketa	8
2.3. Kulturaren esparru estatistikoaren garapena	9
<b>3. KOMUNIKAZIOA ETA HARREMANAK</b>	10
3.1. KEBaren emaitzen hedapena	10
3.2. Kultura behatokien sarea	11
3.3. Hedapen, kontraste eta hausnarketa ekintzak	11
3.4. Kontsultei eta informazio eskabideei arreta ematea	11



## AURKEZPENA

Egonezin orokorreko garaia dugu egungoa eta kultura ere ari da jasaten bizi dugun krisi sakoneko egoeraren eraso. Kultura-aurrekontuen murrizketekin eta zerbitzuen eta programen itxierekin zerikusia duten berriak zenbaitek iluntzat kalifikatzen duen *Zetgeist* bat elikatzen dute.

Behatoki baten eginkizuna informazioa eta jakintza sortzean oinarritzen dela kontuan izanik, azpimarratu behar da elementu horiek, definizioz, aldaketako eta garapeneko faktoreak direla. 2012. urtean, Kulturaren Euskal Behatokiak bere informazio-oinarria zabaltzeko asmoa du euskal kulturaren errealitatea ikuspegi desberdinetatik ulertzen laguntzeko: arteak eta kultura-industriek bizi duten ikuspegitik eta gastu publikoak kulturean duen garrantziaren ikuspegitik. Horrela, bizi ditugun fenomenoak sakonean ulertzeko bilakaera-datuak izango ditugu.

Azterlan kualitatiboen ikuspuntutik, estatistiken inguruan egiten den lana indartzen da, corpus argumental eta teoriko garrantzitsu bat sortzearen balio erantsiarekin. Urte honetan Behatokiak honako bi lan-ildo hauetan sakontzeko asmoa du: alde batetik, laguntzen eta diru-laguntzen mekanismoak aztertzeko eta hobetzeko xedea duen ildo, mekanismo horiek dakarten gizarte-itzultzea ebaluatzen zuzendutako begirada berezi eta berritzailearekin. Bigarrenik, kultura-politikak daraman objektibazio-defizita ordeztuko duen kudeaketa-arrazionalizazioko erduei aplikatutako ikerketa-esparrua ireki da. Kultura-politikan udalerriek hartzen duten protagonismoa kontuan hartzekoa da; izan ere udalerrietako arduradunei zuzenduta daude erreminta hauek.

Zalantzarik gabe, une hauetan hartu beharreko erabakiak ez dira errazak. Laguntza emateko garaia da, gaur egungo errealitateari argia egingo dioten eredu, orientazio eta gidekin.



# 1. IKERKETA, HAUSNARKETA ETA KONTRASTEAK

Arestian esan dugunez, Behatokiaren ikerketa-ildoek 2012rako bi helburu nagusi dituzte: kulturaren finantzaketa eta kulturako kredituak aztertzen jarraitzea eta kulturaren kudeaketa arrazionalizatzen laguntzea, hain zuzen ere udaletako kultura-politiken arduradunei erabakiak hartzea ahalbidetuko dieten tresna praktikoak eskainiz.

## 1.1. Kulturaren finantzaketa eta kulturako kredituak

Kulturaren finantzaketak berezko ezaugarriak ditu, besteak beste, kultura-produktuen izaera ez-materiala dela-eta. Ikuspuntu horretatik, 2012an egingo diren azterketek kultura-ekimen pribatuek jasotzen duten finantzaketaren egungo egoerari eta etorkizuneko hobekuntza-aukerari buruzko ikerketa-ildoarekin jarraituko dute, kulturaren inbertitzearen inguruko gizarte-onura ebaluatzeko metodologiak bilduz.

### ► Euskadiko sorkuntza- eta produkzio-sektoreei zuzendutako laguntza-sistemen ebaluazioa eta berrikuspena

Diru-laguntza zuzenek garrantzi handia dute sorkuntza- eta produkzio-sektoreak bultzatzerakoan. Diru-laguntza kultura-politiketan biltzen diren ekintzen barruan kokatu behar dela aintzat hartuta, lortu nahi diren helburuetarako gaur egungo sistema egokia ote den ebaluatuko da.

Gaur egun sorkuntza- eta produkzio-sektoreei diru-laguntzak eta laguntzak ematea antolatzen duen sistemaren azterketa zorrotz batetik abiatuta, emaitzak balioetsiko dira hutsuneak atzemateko eta hobekuntza-erantzun bat lantzeko. Bigarrenik, laguntzak eta diru-laguntzak ahalik eta gehien sistematzatzea ahalbidetzen duen mekanismo bat garatuko da, maila orokorrean eta sektore-mailan garatzen ari diren kultura-politiken helburuekin koherentea izan dadin. Azkenik, Euskadiko kultura-errealitateko sorkuntza- edo produkzio-sektoreen batean aplikatuko da, emaitzekiko eta ager daitezkeen balizko gorabeheretikiko duen egokitasuna ebaluatzeko.



### ► Kulturako kredituen eta diru-laguntzen gizarte-onura neurtzeko adierazle-sistema

Jakintzaren ekonomia gizarte-kohesioarekin, gobernantzarekin eta iraunkortasunarekin integratzeko ahalegina egiten duen lurralde-garapenean funtsezko zeregina izan dute kultura-politikek. Alabaina, ohiko ebaluazio-sistemek ia beti kontsumoan eta kulturak sorrarazten dituen kanpo-eraginetan oinarritzen diren irizpideak aplikatzen dituzte, neurri horien gizarte-onurari buruzko informazioa ematen duten erremintei lekurik utzi gabe.

Azterlan honetan, kulturaren balio publikoa eta kulturak herritarrentzat dituen onurak neurtzeko orduan kontuan hartu beharreko irizpide eta aldagaien diseinua eta zehaztapena abiapuntutzat hartuta, neurketa hori kultura-eremuan emandako kreditu eta diru-laguntzekiko sistematizatzea ahalbidetuko duten hainbat adierazle definituko dira.

#### 2012ko EMAITZAK

- Laguntzak ebaluatzeko eta emateko mekanismoa.
- Kulturako diru-laguntzen gizarte-onura neurtzeko adierazle-sistema diseinatzea.

## 1.2. Kudeaketaren arrazionalizazioa

Une hauetan, politika publikoak kultura-errealitatean gertatzen diren paradigma-aldaketei egokitzeko premia nabaria dago. Arrazoi hori dela-eta, kultura-dinamikek dakarten kontzeptu-irekierak errealitate berriarekin –balio kulturaleko katearen mailak eta diziplina desberdinak tokibanatzen dituzten eskema klasikoek apurketak markatutakoarekin– bat datozen kudeaketa-ereduak eskatzen ditu.

### ► Kultura-ekipamenduak kanporatzeko / batera kudeatzeko ereduak

Behatokiak uste du ekipamenduak kudeatzeko ereduak sistematizatuko dituen azterlan bati ekitea egokia dela, ekipamendu horien ezaugarrien, premien eta helburuen arabera, eta EAEn ezarpen-gida gisa baliagarria izateko helburuarekin.



Hurbileko kultura-ekipamenduen baterako kudeaketaren eta kanporatzearen ereduaren inguruan, nazioan eta nazioartean gaur egun dauden joeren azterketa batetik abiatuz, EAeko kultura-ekipamenduen sarearen kudeaketa aplikatutako egungo ereduaren azterlana eta diagnostikoa egingo da. Azkenik, hurbileko kultura-ekipamenduen eredu-proposamena landuko da gida-formatuan, tokiko administrazioentzat baliagarria izan dadin.

### ► **Kultura-kudeaketa publikoa arrazionalizatzeko eta lehentasunezkoa izateko azterketa-eredua**

Ikerlan honetan honako hauek aintzat hartuko dituen azterketa-eredu bat zehaztuko da: kultura-politikak ezartzeari lotutako erabakien dimentsio estrategikoa eta hainbat parametro (helburuak, baliabideak eta abar) aztertuz proiektu zehatzak abiaraztea.

Helburua da arduradun politikoei erabakiak hartzen lagunduko dien aplikazio bat –informazio kuantitatiboan nahiz kualitatiboan oinarritutakoa– diseinatzea. Azterketa-ereduaren eta tresnaren abiaraztearekin batera zenbait jarraibide tekniko eman behar dira azterketa bakoitzean egin beharreko informazio kualitatiboaren erabilerari eta bilketari buruz.

#### **2012ko EMAITZAK**

- Hurbileko kultura-ekipamenduak batera kudeatzeko / kanporatzeko ereduaren gida.
- Kultura-kudeaketa publikoa lehentasunezkoa izateko azterketa- eta aplikazio-eredua.



## 2. INFORMAZIOA KUDEATZEKO SISTEMA

Behatokiak urte honetarako kontuan hartuko duen helburuetako bat bere informatzaileekiko harremana sendotzea izango da, bere sistema estatistikoa elikatzekeo prozesua ahalik eta erosoena izan dadin. Horrela, informazioa biltzeko mekanismo errazak praktikan jarriko dira, informazio-iturriak leialtzea lortzeko laguntza eta aholkularitza eskainiz.

### 2.1. Kulturaren euskal behatokiaren berezko estatistikak

2012an Kulturaren Euskal Behatokiak honako bi estatistika-eragiketa hauek ditu abian: kulturako gastu eta inbertsio publikoaren ezagutzaz arduratzen dena eta arteen eta kultura-industrien ezagutzari zuzendutakoa. Bi kasuetan, serieak finkatzen ari dira (biak bi urtean behingo aldizkakotasuna dute) eta horrek ikuspuntua, aberastasuna eta interesa gehitzen die azterketei.

#### ► Kulturaren egindako Finantzaketari eta Gastu Publikoari buruzko EAEko 2010eko Estatistika

*Kulturaren egindako Finantzaketari eta Gastu Publikoari buruzko Estatistikaren* –2010eko datuak jasotzen dituenaren– bigarren edizioaren emaitzak aztertuko dira 2012an. Estatistika horrek biltzen duen balio intrintsekoaz gain, kasu honetan 2008-2010 aldiko bilakaera-irakurketak (bizi dugun egoera ekonomikoa kontuan hartuta interes berezikoak) egiteko aukera ere badago. 2008ko edizioak krisiaren aurreko errealitatea irudikatzen zuen eta 2010eko datuekin errealitate horrek kulturara bideratutako aurrekontu publikoen eremuan izan dezakeen eragina neurtu ahal izango da.

Emaitzak bi bidetatik ezagutaraziko dira: deskripzio-txostenaren bidez eta Behatokiaren kontsulta dinamikoko baliabidean –Behatokiaren web-orrian txertatutakoan– erantsitako taula zehatzen bidez.

#### ► Arteen eta Kultura Industriari buruzko 2011ko Estatistika

2012an abian jarriko da Arteen eta Kultura Industriari buruzko Estatistikaren hirugarren edizioa (horren erreferentzia-urtea 2011 izango da). Urtean zehar landa-lana egingo da, informazioa prestatuz, bilduz, tratatuz eta ustiatuz.

Emaitzak lau motatako produktu hauentzat izango dira baliagarriak: arte eszenikoen, ikusmen-arten, musikaren, liburuaren eta ikus-entzunezkoen sektore-txostenak; “Miradas específicas” (“Begirada espezifikoko”) izeneko txostena, berariaz sektoriala den errealitatea gainditzen duena joera eta ezaugarri



orokorrak atzemateko; EAEko kulturaren oinarritzko adierazleen aginte-koadroa eta azkenik, Behatokiaren PC-Axis aplikazioan sartzen diren emaitza zehatzak.

#### 2012ko EMAITZAK

- Emaidzen txostenak eta azterketa espezifikokoak.
- Oinarritzko adierazleen koadroa.
- PC-Axis aplikazioan bildutako adierazleak.

## 2.2. Bigarren mailako iturrien estatistiken azterketa

Zenbait organismok (Eustat eta EIN nabarmentzekoak dira) sortutako estatistika-informazioa hobeto koordinatzea eta aprobetxatzea lortzeko helburua du Behatokiak.

### ► Azterketa, adierazleen hautaketa eta hedapenerako proposamena

Lan hori Behatokiaren, Eustaten eta EINaren arteko etengabeko koordinazio-lana abian jartzean oinarritzen da, organo desberdinen lanak oihartzun handiagoa izan dezan. Helburu hori lortzeko, premiazkoa izango da adierazleen hautaketa bat egitea honako gai interesgarri hauen arabera: bizi-baldintzak eta kultura, denbora eta kultura, ekonomia eta kultura, familiaren gastua kulturaren eta jardueraren ekonomikoen gidazerrenda.

### ► EAEko kultura-enpresen eta kultura-enpleguaren inguruko azterlana

EAEko kulturaren eremuan dauden enpresen eta enpleguaren ikuspegia aberasteko bestelako iturrietako datuak erabiltzearen adibidea da dagokigun azterlana.

2011n hasitako azterlanaren datuak zabalduko dira 2012an, Behatokiaren eta Kultura Sailaren datuekin baita bestelako iturrietako datuekin ere, esaterako, Eustateko Jarduera Ekonomikoen Gidazerrendakoekin, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren Enpresen Direktorio Nagusikoekin eta Biztanleria Aktiboaren Inkestako datuekin.

#### 2012ko EMAITZAK

- Adierazleen laburpen-txostenak.
- EAEko kultura-enpresen eta kultura-enpleguaren inguruko txostena.





### 2.3. Kulturaren esparru estatistikoaren garapena

Kulturaren Esparru Estatistikoan bildutako eragiketa estatistikoaren operatibitatea optimizatzeko helburuarekin, orain arte garatutako ibilbidearen azterketatik abiatuta, eragiketa estatistiko horien edukia aztertu eta eguneratuko da.

#### ► Kulturaren Esparru Estatistikoa egokitzea eta berrikustea

Behatokiak sakonetik aztertuko du Esparru Estatistikoaren funtzionalitatea eta bere aplikazioaldian atzemandako hutsune eta ahuleziak. Esparru hori diseinatu zenetik bost urte igaro dira; denbora horretan, kulturaren errealitatea aldatu egin da eta Behatokiak bere lehentasunak berbiderratu egin ditu.

#### ► Nazioartean erabiltzen diren estatistika-eredu eta kultura-adierazle berrien konparazio-azterketa

Edozein estatistika serio eta zorrotzek bete behar duen printzipioetako bat nazioarteko konparazioa da. Kulturaren eremuak beste eremu batzuekin alderatuz hutsuneak ditu baina hala eta guztiz ere, Europan eta beste testuinguru batzuetan badaude jarraibide eta erreferentzia metodologikoak. Horrela, hasierako diseinuan egin zen moduan, azterketa estatistikoak egiten dituzten nazioarteko behatoki eta eragile garrantzitsuenen joera eta eredu desberdinei buruzko azterketa prospektiboa egingo da, Kultura Behatokiaren Sarea euskarriztat eta esparrutzat hartuta.

Helburua honako hau da: Kulturaren Euskal Behatokiak (KEB) hurrengo urteetan bere lan estatistikoari eta EAEko kultura-errealitatearen azterketarako adierazleak diseinatzeko lanari dagokienez egin ditzakeen hobekuntzak eta aldaketak identifikatzea.

#### 2012ko EMAITZAK

- 2012-2017 aldiko Kulturaren Esparru Estatistikoa.
- Nazioarteko estatistika-ereduei eta kultura-adierazleei buruzko txostena.



## 3. KOMUNIKAZIOA ETA HARREMANAK

2012an eragiketa estatistiko berriak jarri dira abian eta aldi berean aurreko edizioetako emaitzak jaso dira eta hori dela-eta, Behatokiak komunikazio-lan handia egin beharko du. Hala, argitalpen digitalek berrikuntzak ekarriko dituzte alderdi estatistikoan nahiz izaera kualitatiboagoa duten txostenetan. Aurrekoek gain, kontuan hartu beharko dira proiektu berriak aurkezteko nahiz EAEko kultura-eragileekin gogoetagineak irekitzeko aurreikusitako lan-taldeak.

### 3.1. KEBaren emaitzen hedapena

Aurreko kapituluetan deskribatu den moduan, 2012. urtea urte emankorra izango da edukiei dagokienez; izan ere, jakintza-banku handia osatuta dago jadanik eta Behatokiak horren berri emango du ohiko bideak erabiliz.

#### ► Kultura Estatistiken eta Azterlanen Bilduma

EAEko Kultura Eremuko Enpresei eta Enpleguei buruzko azterlanak (2010) eta Arteei eta Kultura Industriei buruzko 2009ko Estatistikaren emaitzak osatuko dituzte bildumaren ale berriak, betiere ikuspegi osagarriekin (sektore-emaitzak, begirada espezifikoaren txostena). Urte honetako beste berrikuntza nagusietako bat izango dira *Kulturan egindako Finantzaketari eta Gastu Publikoari buruzko 2010eko Estatistikaren* emaitzak. Aipatutako bilduman aurreikusita dago urtearen amaierarako Arteei eta Kultura Industriei buruzko 2011ko Estatistikaren emaitzak edukitzea.

#### ► Beste txosten batzuk

*Kultura 10-11* estatistika-urtekaria Jardun Plan honetan deskribatutako 2012ko ikerketen emaitzei gehitzen zaie. Nabarmentzekoa da kudeaketa arrazionalizatzeari bideratutako ikerketa-ildoak; horren berrikuntza lantzen dituen gaietan oinarritzen da baina baita eredu, gida edo tresna praktikoa gisa eskaintzen dituen emaitza motan ere.



### ► Datu-banku estatistikoa (PC Axis)

Behatokiaren web-orriko aplikazio horrek aipatutako estatistiketan xehatutako emaitzak bilduko ditu.

### ► Jakintza-albisteen hedapena

*Kulturkaria* hileko buletina lantzen eta hedatzen jarraituko du Behatokiak; buletin horretan laburtzen dira normalean Kulturklik atariaren bitartez hedatutako jakintzari buruzko albiste garrantzitsuenak.

## 3.2. Kultura behatokiaren sarea

Hasieratik, Kulturraren Euskal Behatokiak beste kultura-behatoki batzuekin koordinatzeko eta lan-ildo bat irekita edukitzeko borondatea izan du. Formula hori emankorra izan da eta horri jarraiki ikerketa komunak sortu dira baita topaketak eta lan-jardunaldiak ere, EAEn nahiz Europan. 2012an behatoki desberdinen arteko harremanak sustatuko dira, egindako lana bateratzeko proposamen berriak planteatuko dira eta 2012an hasi eta 2013an garatuko diren sareko lan-proiektu berriak proposatuko dira.

## 3.3. Hedapen, kontraste eta hausnarketa ekintzak

2012. urtea urte garrantzitsua izango da kultura-eragileekiko harreman zuzenari dagokionez; izan ere, topaguneak irekiko dira eragiketa estatistikoak aurkeztu eta ezagutarazteko, emaitzak aurkezteko, ikerketa berriak kontrastatu eta bateratzeko eta abar.

## 3.4. Kontsultei eta informazio eskabideei arreta ematea

Logikoa denez, Behatokia jasotzen diren kontsulta eta informazio-eskaerei irekita dago; eskaera puntualei arreta emateaz gain, kultura-sektoreetatik eratorritako ikerketei ekiteko aukerak aztertzen eta balioesten dira.